



**2014KO MAIATZAREN 29KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2014ko apirilaren 24an egindako ohiko eta apirilaren 26an eta maiatzaren 9an egindako ez ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.

**III.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 16. ETA 17. OBRA-EGIAZTAGIRIAK.-**

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 16. eta 17. obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Lanen 16. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEITA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA LAU EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMOTakoa (25.904,96 €) da eta 17. obra-egiaztegiaria HIRUROGEITA BEDERATZI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HAMAR ZENTIMOTakoa (69.165,10 €). Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 16. eta 17. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.



Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretora itzuli egiten da.

#### IV.- MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA.-

Jarraian, mendekoen arretarako etxeoko laguntza zerbitzua finantzaketaren inguruan, gizarte zerbitzuetako batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena izenpe-tea proposatzen du.

Irastortza zinegotziak (EAJ) ea aurreko hitzarmenarekiko zein aldaketa dauden gal-detzen du.

Honen aurrean, Alkateak esaten du egon daitezken zalantzak eta argibideak ba-tzordean bertan ematea dela onena eta, gaia mahai gainean uzten da.

#### V.- SASIETAKO ZABORTEGIAREN INGURUKO PSE ETA EAJ-PNVREN MOZIOAK.-

Lazkaoko PSE eta EAJ-PNVk aurkeztutako mozioak honela dio:

"Sasietako zabortegia, hizpide dugu azkenaldian, bere itxiera data dela eta dirudienez, Sa-sietako Mankomunitate edo Beasaingo Udaletxean hartu ordez, Bilduk, Foru Aldundian edo auskalo non hartu dituen erabakiak medio.

Gogoratu Sasietako zabortegia 80. Hamarkadan ireki zela Goierri osoko hiri hondakinak ja-so ahal izateko.

Zabaldu zenetik ordea, Debagoieneko hondakinak jaso zituen eta handik gutxira, baita To-losaldekoak ere.

San Markoko zabortejiaren itxiera ez zen posible izango, Lurraldeko Mankomunitate guzti-en, Donostiako Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko akordiorik izan ez balitz. Akordio ho-rrri esker sortu zen GHK bera ere, zaborteji guztiak isteko helburuarekin.

San Markoko zabortegia itxi ahal izateko, bertara zihoan zabor kopuru handi bat, 2008tik gaur arte Sasietara desbideratu zen beti ere **Zubietako azpiegiturak martxan jarri bi-tartean.**

Plan hura gauzatzeko epea, PIGRUGek aurreikusitakoa, Foru arau xedapenarekin eta be-raz Sasietako zabortejiaren itxiera ezartzen zuena, 2014koa da.

Orain aste batzuk, Foru Aldundiak bere Plan berria azaldu zuen, bere epeekin eta zaborte-giei dagokionean, bata bestearen atzetik ixtea aurreikusten dituena: Urteta (Zarautz) 2014ko abendurako, Lapatx (Azpeitia) 2015eko ekainerako eta Sasieta (Beasain) 2015 bu-kaerarako.

Itxiera hauek eta "Gipuzkoa Garbia" kanpainaren barruan, nahi hainbesteko propaganda izan dute komunikabideetan.







Sasietari dagokionean, guztiaren berri, komunikabideei esker izan dugu, bertako Gobernu batzordeetatik, Udaletako ordezkariari inongo informaziorik ez baitzaigu eman, (are gutxiago Udal honetako Gobernuan dagoen Bilduren partetik ere). Nork hartu ditu gure bailarari dagozkien erabakiak, bertako batzordeetatik pasatu ere ez badira egin?

Zabortegeien itxieraren ordenari dagokionean, deigarria da lehendabizi itxi behar direnak Zarautz eta Azpeitikoak izatea, ingurugiro zuzendaria eta diputatua bertakoak direnean.

Plan horrek bi ondorio izango ditu nagusiki.

Batetik, oraindik proiektuen erredakzioarekin hasi ere egin ez denean, 2015 erako ezinezkoa izango dela azpiegitura horiek martxan jartzea. Bestetik, Urteta eta Lapatx itxiko balira gainontzeko azpiegiturak egiteke egonik, **Bilduk erabaki du Gipuzkoa osoko zaborrak Sasietan jasotzea, horrela Sasieta Gipuzkoako zabortegei bihurtuaz.**

Guzti honegatik, Udal honetako EAJ-PNVko zinegotzi taldeak, erabaki hauek hartu ditezten eskatzen du:

- 1/. Lazkaoko Udalak Sasieta Mankomunitateak hartutako erabakia berrestea Sasieta itxierari dagokionean.
- 2/. Zabortegeiak eraman beharreko azpiegiturak martxan egon arte, hiru zabortegeiak irekita mantentzea.
- 3/. Sasieta mankomunitatea osatzen dugun herrietako Udalei akordio honen berri ematea, Udal horietako Osoko Bilkuretan akordio hauek berretsi ditzaten.
- 4/. Akordio hauek, Sasieta Mankomunitatea, GHK eta Foru Aldundiko ingurugiro sailera helaraztea.
- 5/. Mozio honen idatzi eta akordioak, anuntzio gisa, lurralde eta bailarako komunikabideetan argitaratzea."

Mozio honen aurrean Alkateak (Bildu) esaten du, besteak beste, errauste plantak ez datozela bat birziklatzearen aldeko apustuarekin eta hondakinen murrizketan eta berreskuratzean pausoak ematen badira, ez litzakela izango errausteko tona nahikorik eta aurreikusita zegoen Zubietako erraustegia gairak gaituzteko zegoela. Azkenean, esaten du, uste dutela aurkeztu duten mozioak ez duela beraien aurkakotasuna besterik adierazten, eta beraz aurkako bozka emango diotela.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, mozia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7 botuz (Bildu) mozia ez onartzea erabakitzen du.

#### VI.- KUTXABANKEN INGURUKO EH BILDUREN ETA EAJREN MOZIOAK.-

Eh bilduren mozioak honela dio:

"Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAEko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion –eta ondorioz KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik



zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantzas betetakoa daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKEko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandun Of Understansing-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKEk mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.


Guzti honegatik, EHBilduko Udal Taldeak honako akordio puntuak aurkezten ditu Lazkaoko Udaleko Udaltzako eztabaidatu eta onartu ditzan:

1- Lazkaoko Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia-ko Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharrianetara zuzendu dezatela eskatzen die.

2- Lazkaoko Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia-ko Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAKo Gobernu Organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkartza proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza arloko beste entitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.

3- Lazkaoko Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia-ko Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, KUTXAKo langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.

4- Lazkaoko Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia-ko Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAK bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %32koa izaten jarraituko duelarik.







5- Lazkaoko Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.

6- Lazkaoko Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAeko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.

7- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusiei, Donostiako Udalari, KUTXAko Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, KUTXAko Lehendakariari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politiko guztiei helaraziko die."

Gai honen inguruko EAJ-PNVren mozioak honela dio:

"ENMENDAKINA:

- 1.- Udaltzarak bere aitortza erakusten du ehun urte baino gehiagoko historian zehar Kutxak egindako lanagatik, bere gizarte lanagatik, bere finantza jardueragatik eta gure Lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialen izandako inplikazioagatik, finantza eragile nagusi moduan.
- 2.- Udaltzara, Espainiako finantza sisteman gertatzen ari den berregituratzearen aurrean, Kutxa banku fundazio bihurtzearen alde agertzen da, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legea betetzeko, eta, alde horretatik, gobernu organoiei eskatzen die beharrezko izapideei ekitea, bihurtze hori Legeak xedaturiko epe eta terminoen arabera gertatzeko.
- 3.- Udaltzarak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legeak ezarritakoa betez, aurrezki kutxei buruzko euskal legedia egoki dezala eta banku fundazioei buruzko lege propioa gara dezala, legegintzako izapideak ahalbidetzen duen ahalik eta azkarren eta, nolana ere, ekitaldi honetan.
- 4.- Udaltzarak, Kutxaren gizarte jardueraren etorkizuna defendatzen du, bai eta Lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialarekiko duen konpromisoaren jarraipena, Kutxako edo banku Fundazioko gobernu organoetan izango duen ordezkartzaren bidez, eta Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio gauza bera egin dezala.
- 5.- Udaltzarak Kutxako gobernu organoiei eskatzen die aurrezki kutxa banku fundazio bihurtzeko prozesuan gardentasunez jokatzeko, indarrean dagoen legedia estu betez eta banku fundazioaren patronatuan Gipuzkoako gizartearen gehiengoa eta aniztasuna errespetuz ordezkartuta egoteko hastapenarekin bat.
- 6.- Udaltzarak adierazten du Kutxaren eginkizunak etorkizunean ere izan behar duela duen ondarea kudeatzea lurralderekiko konpromisoa irizpide erabilita, ekonomi eta gizarte garapena sustatuz, aipatu ondarearen etekinak Gizarte Ekintzara bideratuta, lehen-



tasuntzat izanik aipatu ondarea babestu eta handitzea, eta lurraldearekiko konpromisoaren erakusgarri, Kutxabanken kontrola Euskadin egoten laguntzen duela.”

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du EAJren mozioaren alde bozkatuko duela eta gehitzen du legezkoa bete egin behar dela kabalak egin gabe.

Guzti honen ondoren lehenengo EHBilduk aurkeztutako mozia bozkatzen da eta udalak aldeko 7 botu (Bildu) eta aurkako 6 botuz (EAJ, PSE-EE) mozia onartzea erabakitzen du.

Jarraian EAJ-PNVk aurkeztutako mozia bozkatzen da eta udalak, aldeko 6 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7 botuz (Bildu) mozia ez onartzea erabakitzen du.

#### VII.- ESAITEN INGURUKO BILDUREN ETA EAJ-PNVREN MOZIOAK.-

Bilduk aurkeztutako mozioak honela dio:

#### **“Zioen adierazpena**

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C 303/01) (2007/C 303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontuan hartuta:

1. Bereizkeria oro debekatzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.

2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatzen da, Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren aplikazio-esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.

Gurean aldiz, nahiz eta gizartearen gehiengoak bat egin, euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiari modu positiboan erantzun beharko liokete, eskura diren bitartekoak erabiliz.

Zentzu honetan, erakunde honen kompetentzia euskal selekzioa baztertzea ekiditea ez bada ere, ekarpen xume bat egin lezake, dagozkien instituzioei, udaletxe eta herri/hiri honen aldarria helarazi eta egungo bazterketa ezar ez dezaten.

Eta bazterketa hau kirol eremu guztietan ematen bada ere, egun mahai gainean dagoen eztabaida kontuan hartuta, alegia futbola eta Eurokopa, honako mozia aurkezta da.

Hau dela eta, honako mozia aurkezten da.

#### **Mozioren testua**

Lazkaoko Udalak, Lazkaoko herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:





1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.

2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selektzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio."

EAJ-PNVk aurkeztutako mozioak honela dio:

"EUSKAL SELEKZIOEN NAZIOARTEKO OFIZIALTASUNARI BURUZKO MOZIO INSTITUZIO-NALA

### Zioa,

Eusko Jaurlaritzak Gobernantza Demokratikoaren Institutuari eskatu dio Euskal Kirol Federazioek euskal kirol federatua ordezkatzearen bideragarritasun juridikoari buruzko txostena egitea. Txosten hau legelari adituen talde batek egin du (erantsita doa txostenaren kopia), eta iragan apirilaren 10ean aurkeztu zen jendaurrean. Euskal Kirol Federazioen Elkar-tearekin batera antolatutako jardunaldian, jardunaldi horretan euskal kirolaren erakunde eta eragilerik esanguratsuenek parte hartu zuten. Txosten horren ondorioen azalpenak ikusita, honako hauek esan daitezke:

1. Ez dago eragozpen juridikorik Estaturik gabeko nazio edo lurraldeetako federazioek nazioarteko federazioen parte izan daitezen eta lehiaketa ofizialetan parte har dezaten. Hau da, Espainiako, Europako edo nazioarteko ordenamendu juridikoan ez dago euskal federazioen proiektio edo dimentsio internazionala debekatu edo eragoztiko duen aginduzko araurik.

2. Kontua ez dago, beraz, ezintasun juridikoan, baizik eta borondatean, eta hiru dira honen inguruan batu behar diren borondateak:

a) Euskal kirol federazioen aldetik, integrazioa eskatzeko borondatea.

b) Espainiako federazioen eta beren Administrazio tutoreen borondatea, integrazio hori ahalbidetzekoa edo ez eragoztekoa.

c) Nazioarteko federazioen borondatea, beren araudian baldintza egokiak jasotzekoa eta, ondoren, integratzeko eskariak onartzekoa.

Ondorioz, atxikipen eskariari uko egingo balitzaio –eta, arestian azaldutakoaren arabera, ez litzateke inolako eragozpen juridikoagatik izango–, TAS (Kiroleko Arbitraje-Auzitegia) delakoaren aurrean errekurtsioa jartzeko bidea aztertzeko aukera dago, eta, baita ere, eztabaida juridikoa planteatu daiteke Europako erakundearen aurrean (Europako Batzorde eta Luxenburgoko Epaitegiaren aurrean, edo Europako Legebiltzarraren aurrean), nazioarteko kirol lehiaketetan parte hartzeko mugatze hori (kasu honetan Europaren mailan, Europar Batasuna osatzen duten 28 estatuetan) Europar Batasuneko tratatu eta hitzarmenetan aurreikusten diren askatasunen kontrakoa ote den argitzearren.

Azaldutako horregatik guztiagatik, Udal Talde honek Lazkaoko Udalarari planteatzen dizkio honako,



AKORDIOAK:

**Lehena:** Udal Korporazioaren babesa adieraztea euskal selekzioen nazioarteko ofizialtasunaren aldeko aldarriari.

**Bigarrena:** Aurrera eraman nahi den neurrian saiatzeak merezi duenez, euskal federazioak animatzea nazioarteko ofizialtasuna lortzeko bide juridikoak aztertzea eta agortzea, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Kirol Federazioen Batasunaren laguntzarekin.

Lazkao, 2014ko maiatza”

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez dela lehenengo aldia gai hau eztabaidatzen denekoa eta errebindikazio politiko bat dela eta aurka bozkatuko duela.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du EAJren mozioaren aurrean, denboragatik edo, ez dutela beraien mozioarekin adosterik izan baina alde bozkatuko dutela.

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da Bilduk aurkeztutako mozioa eta udalak aldeko 7 botu (Bildu), aurkako botu 1 (PSE-EE) eta 5 abstentzioz (EAJ) mozio hau onartzea erabakitzen du.

Jarraian EAJk aurkeztutako mozioa bozkatzen da eta udalak aldeko 12 botu (Bildu, EAJ) eta aurkako botu batez (PSE-EE) mozio hau onartzea erabakitzen du.

#### VIII.- SAKABANAKETAREN INGURUAN BILDUREN ETA EAJ-PNVREN MOZIOAK.-

Bilduk aurkeztutako mozioak honela dio:

“2014ko maiatzaren 15ean, Euskal Presoen aurkako sakabanaketa politikak 25 urte betetzen ditu. Konta ezina izan da, azken 25 urte hauetan, erabaki politiko anker horrek, preso, senitarteko, lagun eta gizarte osoari eragin dion sufrimendua. Sufrimendu gehigarria. Sakabanaketa politikak lege ororen gainera, preso dagoen pertsonaren suntsiketa fisiko eta psikologikoa izan du helburu. Baita astero milaka kilometro egitera behartzen dituen senide eta lagunenganako zigor gehigarria ere.

Zerrenda beltza utzi digu azken urteetan sakabanaketak. Estatu espainiar eta frantziarrak garatutako kartzela politikak, 23 preso eta 16 senide eta lagun heriotza ekarri du. Errepidean zaurituak aldiz hamarnaka izan dira, ehunka istriputan.

Euskal Herrian bake eta demokraziarako benetako aukera bat irekita dugun arren, Madril eta Parisetik, oraindik ere, hainbeste sufrimendu ekarri digun sakabanaketa politika, areagotzen ari dira.

Giza Eskubideen Adierazpenaren edukia aintzat harturik, euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko espetxe-neurriak indarrik gabe utzi behar direla uste dugu. Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea, gaixotasun larriak dituzten eta adinduak diren presoak libre gelditzea eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak aske geratzea.

Aitzitik, giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko prestutasuna adierazten dugu, betiere modu eraikitzailean egiazko konponbideak bilatu nahian.







**Hori horrela, Lazkaoko Udaletik, Euskal Presoen sakabanaketa politikarekin amaitzeko eskatuz antolatzen diren mobilizazio eta ekimenetan parte hartzeko deia egiten diegu herritarrei."**

Gai honen inguruan EAJk aurkeztutako mozioak honela dio:

**"Azalpena**

Espetxe politikak zerikusi handia du euskal errealitate soziopolitikoan, euskal erakunde esparruetan eragina duten eztabaidetan dago. Gizartearen sektore zabalek espetxe politika horren gorabeherak bizi dituzte, eta politika hori aldaraztea eskatu dute.

Espetxe politikak, halaber, errealitate zaugarri eta ahuletan du eragina, besteak beste, preso dauden pertsonengan, beren familiengan eta hauek guztiek dituzten eskubideetan. Zentzu honetan, espetxe politika batek humanizatzeko edo deshumanizatzeko izan dezakeen gaitasunaren isla argia da.

Zio horiengatik, hain zuzen, espetxe politika bizikidetza politika baten zatitzat jo beharra dago; are gehiago, oraingoa moduko testuinguru batean. Espetxe politikaren dimentsio hau ulertzeko, ezinbesteko dugu funtsezko erreferentzia bi gogoratzea:

- Espainiar Konstituzioaren 25.2 artikulua arabera, askatasuna murrizteko zigorrak preso dauden pertsonak berreztera eta birgizarteratzera bideratuak behar dituzte izan.
- Konstituzioan ematen den azalpen honek balore berezia hartzen du orain, ETaren bortxakeria behin betiko amaitu den testuinguruan, halako delituetan berriz erortzeko mehatxua desagertu dela esan nahi duelako.

Marko honetan, eta espetxe politika bizikidetza politika baten parte izan dadin, bere aplikazioa aldarazi behar da, ETaren bortxakeriari erantzuteko hartu ziren salbuespen estandarrek zehaztuta dagoen neurrian. Orduan ere neurri batzuk eztabaidagarriak eta eztabaidatuak ziren. Oraingo testuinguru honetan, ezinbesteko dugu normaltasun estandarrak berreskuratzea.

Espetxe politika horrek, bizikidetza politika baten zatia den moduan ulertuta, bi alderdi ditu: alde batetik dago Gobernuaren eskuetan dagoena, erakundeen eta zigor zuzenbidearen eskuetan; eta, beste alde batetik, presoen eta beren erakundeen eskuetan dagoena. Zentzu honetan, ondo ezberdindu behar diren lau maila daude.

- Lehenengo eta behin, preso dauden pertsonen eskuetan dago legearen arabera beren egoera hobetzeko dagozkien neurriak eskatzea, esate baterako, beren bizitokietatik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzea (LOGP legearen 12.1 artikulua), gaixotasun larriak dituzten presoak espetxetik ateratzea (Espetxe Araudiaren 104.4 artikulua) edo 70 urtetik gorako kartzelaratuak espetxetik ateratzea (Araudi bereko 92. artikulua). Neurri horiek aplikatu ahalko dira preso dagoen pertsonari baldintza apartekorik eskatu beharrik gabe. Bitxia eta harrigarria bada ere, hainbat hamarkadatan, presoen elkargoak uko egin dio halako eskariak egiteari; orain beren irizpidea aldatu dute eta, zorionez, eskari horiek tramitatzen hasi dira.



- Bigarrenez, Gobernuaren eskuetan dago espetxe politikak berarekin daraman helburu humanizatzailea betetzea, eta legeriak berak preso dauden pertsonen egoera hobetzeko aurreikusten dituen neurriak normaltasunez eta berdintasunez aplikatzea. Horrek berarekin dakar hurbiltze prozesua egitea edo preso gaixoen zatia eta 70 urtetik gorakoentzat irtenbide humanitarioak ezartzea.
- Hirugarren lekuan dago, gizarteratzeko lege prozesuak aktibatzea bortxazko delituentzat kartzelaratuta dauden pertsonen eskuetan dagoena. Kasu hauetan, bete beharreko baldintza da biktimei eragindako kalteari buruzko hausnarketa autokritikoa egitea, kalte bidegabea, pertsona haien giza eskubideak urratzea ekarri zuelako. Autokritika hau ezin da soilik preso dagoen pertsona bakoitzaren ardurapean utzi. Zentzuduna da erakundeek eta bortxakeriaren erabilerari balore politikoa eman ziotenek autokritika hori egiteko lehenak izatea.
- Laugarren tokian, Estatuari dagokio askatasuna murrizteko zigorren helburu birgizarteratzailea garatzea eta honetarako prozesuak sustatzea, legeak aurreikusten dituen ohiko espetxe onurei bida emanez.

Irizpide horiek argi utzirik eta espetxe politikaren inguruan planteatzen diren aldarrikapen ezberdinen aurrean, Lazkaoko Udalak honako akordio hau hartu du.

- 1.- Espainiar Gobernuari espetxe politika bizikidetzat politikaren zati bihurtzeko gonbidapena luzatzea, eta ondorioz, espetxe politika hori aldaraztea eskatzea, salbuespen estandarrik gaituz. Halaber, euskal erakundeekin adostea eskatzen da eta espetxe politika Eusko Jaurlaritzaren ardurapean uztea, Gernikako Estatutuak berak 10.14 artikuluan ezartzen duena betez.
- 2.- Espetxe Erakundeetara presoak beren bizitokietatik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzea, zigor legeriak hala ezartzen duelako (LOGP legearen 12.1 artikulua). Era berean eskatzen da Espetxe Araudiaren 1204.4 artikulua aplikatzea gaixo larrien kasuan eta araudi bereko 92. artikulua aplikatzea 70 urtetik gorako preso kasuetarako.
- 3.- Presoei eta babesa ematen dieten erakundeetara birgizarteratzeko lege barruan aurreikusten diren urratsak ematen hastea eskatzea. Prozesu hauek norbanakoaren ekimen bidez bideratu ahal dira eta, egin den delituaren arabera, hausnarketa arduratsu eta autokritikoa egin beharko da biktimei urratu zaizkien giza eskubideen inguruan.
- 4.- Gure gizartean, giza eskubide guztiak defendatzeko konpromisoa sustatzea, ikuspegi integral eta ez baztertzailatik abiatuta, eta oraina, etorkizuna eta iragana konpentsatzen dituen. Horrek berarekin dakar urratua izan den giza eskubide bakoitzarekiko aitortpen kritiko eta berariazkoa egitea, urraketa hori ETAK gauzatu izan bada zein bestelako iturritik eragindako bortxakeria izan bada.

Lazkaon, 2014 maiatza"

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du berriro ere eztabaida bera dela eta Bilduren mozioan eboluzionatu gabeko jarrerak direla eta mozioaren aurka bozkatu duela. Esaten du baita ere EAJren mozioari dagokionean zalantzak sortzen zaizkiola eta beste era bateara idatzita egotea gustatuko litzaiekela, hala ere alde bozkatuko duela.





Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du EAJren mozioa hanka motz gelditzen dela iruditzen zaiela eta aurka bozkatuko dutela.

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da Bilduk aurkeztutako mozioa eta udalak aldeko 7 botu (Bildu) eta aurkako 6 botuz (EAJ, PSE-EE) mozio hau onartzea erabakitzen du.

Jarraian EAJk aurkeztutako mozioa bozkatzen da eta udalak aldeko 6 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7 botuz (Bildu) mozio hau ez onartzea erabakitzen du.

#### IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du dokumentazioa bi hizkuntzetan bidaltzeko eskatzen duela eta beste askotan eskatu duela hau bera eta azkeneko aldia dela eskatzen duela eta berriro gertatzen bada beste era bateko neurriak hartuko dituela.

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

